

# Ahokotasunetik, haurrentzako sorkuntza konkretu bat: INAXITO



**Tolosa Usarraga, Gorka**  
**Haur eta gazte dinamizatzailea**

## LABURPENA

Bertsogintzaren mundutik jauzi egin eta bertso-antzerkiaren bidea urratu dugu Trikuharri taldeak joan den zazpi urteetan zehar. Hiru bertso-antzerki, batez ere, Lehen Hezkuntzako haurrentzat pentsatuta eraiki eta plazaratu ditugu gutxi-asko 250 alditan. Ahokotasunaren munduan esparru berriak ezagutu, esperimentatu eta bertsogintzak haurren munduarentzat eman zezakeen apurraren ale batzuk proposatzea izan da gure ahalegina; emanaldiz emanaldi ondua. Denborak eta eskarmentuak gorputzua.

Ibilbidean eginiko gogoeta askoren artean gelditu dira printza batzuk, artikulu honetan aurkezten direnak (Tolosa, G. 2007ko jarraipena dena). Ahokotasunaren eremutik begira egindako gogoetak dira. Bertsogintza izan da, batez ere, gure haurtzaroko ahozko iturria. Hartatik jasoak xehatu eta identifikatu ditugu bertso-antzerkian langai bihurtzeraino. Oharkabean egiten genituenak ohartuki ekoizten ikasi dugu ibilbidean. Ohartu garenaz mintzatuko gara ondorengo lerroetan, batez ere, ahozko tradiziotik eratorritako ekoizpenetan zer baliabide berritzen ditugun ekoizpen bakoitzean. Nola gaurkotzen ditugun ahozko euskarri zaharrak eta zertarako darabiltzagun euskarri horiek guztiak. Oharturik, bertsogintzatik abiatutako bideak ahozko tradizio guztietan murgiltzeko gonbita egin digula. Oharturik, gonbidapena gozagarri eta aberasgarri bihurtu dela bertsogintzari egin diogun ekarpenean eta, oro har, ahokotasunaren esparru zabalean.

## 0. SARRERA: INAXITOREN EGITASMOA

2003. urtean Gorka Tolosaren proposamenari jarraiki sortu zen Trikuharri taldea<sup>1</sup> hau-

1 - Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Gorka Tolosak osatzen dugu.

rrentzako pentsatu eta ekoitzia izango zen taldearen lehen bertso-antzerkia abian jarzeko: *Inaxitoren Ametsak*. Sortze hartan bi nahik bat egin zuten: bata izan zen taldekideok bertsoa ohiko bideetatik bestelako moldeetan esperimendatzeko (jorratzeko) gogoia, eta bestea, berriz, garai haietako bertsogintzak haurrentzako zuen eskaintzaren hutsunea betetzea. Bertso-eskoletan irakasle ginen taldekideok, eta oso garbi ikusten genuen bazela beharra haurrentzat bertsoa jorratuko zuten emanaldi ludikoak eskaintzeko. Bertsogintza dibertigarria eta erakargarria izango zen molde berri bat aurkezteko.

Gure garaian, bertso-eskolan bertsoaren egitura, teknika zein bertso-zaharren lanketari ia erabat lotutako metodologia erabiltzen bazen ere, gerora izan genuen beste ur batzuk ezagutzeko aukerarik: bertso-antzerkien bidez gozatu eta formatu hura esperimendatzeko aukera izan genuen. Bertso-eskolek antolatutako jai edo emanaldietan oharkabean uztartzen genituen antzerkia eta bertsoa. Hura guztia modu kontziente eta landuan gauzatzearen aberasgarritasunaz jabetu ginen haurrentzako bertso-antzerkigintzaren bidea harturik.

Harrezkero, zazpi urte igaro dira eta hiru bertso-antzerki taularatu ditugu: *Inaxitoren Ametsak*; *1, 2, 3... Inaxito!*; eta *Galtzagorriei to, Inaxito!*. Hamaika eskarmentu, esperimentu, ezagupen eta gozatu bizi izan ditugu harrezkero.

Bertso-antzerkiak ari garenean, bertsoz bertso jositako hari baten jarraipena dela esatea okerra litzateke gure kasuan. Antzerkia da abiapuntua, bitartekoa eta amaiera gure ekoizpenetan. Antzerkiaren barruan bizi da bertsoa, eta hark harilkatzen ditu askotan mezuak, ekintzak zein urratsak. Dena dela, bertsoak ez ezik, ahozko beste molde batzuek ere jantzen dute gure antzerkia: kontaketa nahiz ipuinek, kantuek, esaera zaharrek eta ahozko tradiziozko beste hainbat osagaik taxutua da azken emaitza.

Eta zer hobeto, orduan, haurrentzako eskaintza berria antzerkiaren markoan biziko zen bertsogintza izatea baino? Formula egokiena bertso-antzerkiarena zela pentsatu genuen, eta ohartu gara gaur egun, hartutako bideak baduela zer emana.

## 1. IBILBIDEA

*Inaxitoren Ametsak* izan zen lehen antzezlan. Gerora etorri dira *1, 2, 3... Inaxito!* eta *Galtzagorriei to, Inaxito!*. Guztietan, Inaxito mutiko bihurri eta maitagarria da protagonista nagusia, eta bakoitzean gai nagusi bat jorratzen da: lehenean, Inaxitok mundua ezagutzen du ametsetan, hainbat kultura eta bizipen; bigarrean, berriz, irudimenarekin jolas egiten ikasten du Inaxitok; eta, azkenean, euskal mitologia lantzen dugu.

Zazpi urte hauetan, 250 emanaldi inguru egin dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Oso leku desberdinetan –plaza, areto, ikastetxe, gaztetxe...–. Horietatik % 90 Bizkaian eta Gipuzkoan, azken horretan gehixeago. %10 Araban eta Nafarroan, eta Iparraldean, bi urtez behin emanaldi bat baino ez.

## 2. SUKALDE LANA

Gure antzezlanak ekoizteko orduan, etxean egindakoari ematen diogu garrantzia. Enkarguzko gidioletatik urruti, auzolanean gauzatzen dira eginkizunak, betiere gertuko-koen aholkuekin eta jorratu nahi den gaiaren inguruko adituen laguntzarekin.

Urte hauetan, talde izaera errotuz joan gara. Afiziotik abiatu ginen eta ofizio bihurtu zitekeen arren, ez gara horretara iritsi. Ez zen ere gure helburua hura. Horrek guztiak eraman du antzezlanek ezaugarri jakin batzuk izan ditzaten. Talde izaerak berak hala-xe lagunduta.

Sinpletasuna edo soiltasuna bidelagun, material justuekin eta ilusio handiarekin iritsi nahi izaten dugu haurrengana. Gu haiengana eta haiek gugana, parte-hartzea bultzatuz. Inaxitoren lana da, batik bat, haurrekin konplizitatea lortzea, bera baita errealitatearen eta antzerkiaren arteko kate-begia. Lantegi horretan, gure baliabide maiteena eta erabiliena hizkuntza da. Ahozko hizkuntza.

## 3. AHOZKO TRADIZIOA ITURRI

Ahokotasuna da gure antzezlanaren ardatza. Partaideak bertso mundukoak izaki, aparteko lekua du ahozko tradizioak, eta justuki, ahozko literaturaren iturritik jaso eta berriturik azaleratzen ditugu ahozko hainbat jarduera: atsotitzak, ipuinak eta istorioak, kantuak, bertsoak... Formaz eta edukiz, batzuetan, jaso bezala emanak eta besteetan, berrituak edo egokituak.

*Galtzagorriei to, Inaxito!* antzezlanaren euskal mitologiaren jakintza aberatsa azaleratu eta aurkezteko nahieratik sortu zen: euskal mitologiaren bitartez gizakiaren eta izadiaren arteko hartu-emanek jarduteko eta, batez ere, hainbat giza balio lantzeko.

Euskal mitologiaren inguruko kontu eta kondairak ahoz aho transmititu izan dira eta guk ere halaxe jarraitu nahi izan dugu katea luzatzen. Komunikazioaren gozamenerako bitartekoak dira esaera zaharrak, ipuinak eta kondairak, kantuak, bertsoak... Altxorrek dira ahokotasunaren erresuma zaharrea, eta altxor izaten jarraitzen dute testuinguru *modernizatu* batean, horiek egokituta erabiliz gero.

Eta nola erabili ditugu iturri zaharretik jasotako baliabideok? Hara, ondorengo lerroetan, gure zenbait ekarpen ataletan banatuta:

- Esaera zaharrak.
- Ipuinak eta kontaketak.
- Kantuak.
- Bertsoak eta koplak.
- Ahozko elkarrekintza.

### 3.1. Esaera zaharrak

Geure gidoian txertatuak eta propio horretarako jaso zein pentsatuak dira erabili ohi ditugun atsotitz eta hitz jokoak. Ahozko edozein elkarrizketa eta jardunetan euskal tradizioaren indar galdua berpizteko asmoz darabiltzagu molde eraikiok, eta, bide batez, gure jardunaren aberasgarri ere badira, musikalitatea dutelako, erritmo aldaketak sorrarazten dituztelako eta hitzaren jolasean murgiltzen garelako antzerkian bertan parte hartzen dugun ikusle eta aktoreak (Tolosa, G. 2007).

Esaera zaharrak: bere horretan emanak eta berrituak. Bi eratan aurkeztu ditugu an-tezlanean. Gizakiarengandik haragoko pertsonaien ahotan gehienak: euskal mitolo-gian protagonista diren pertsonaien hitzetan jarri ditugu, batez ere, esaerok. Zertarako? Misterioz beteriko mundu horren xarma linguistikoa aurkezteko eta, batez ere, pertsonaia mitologikoen mezuek duten esan-indarra sendotzeko edo handitzeko. Modu horretan, bereizi nahi izan ditugu pertsonaia mitologikoen hizkera eta egungo mundu-kideonak. Jakintzak, balioek eta izadiak berezko duten handitasuna hizkuntza-ren aberastasunarekin uztarturik.

Hona hemen aipatuaren bi adibide:

- Inaxitoren eta Laminaren arteko elkarrizketa. Laminak erreka ondoko harkaitz batean ahaztuta utzi duen orrazia itzultzera joan zaio Inaxito:

*LAMIA: Egia esatea nahi baduk, orrazirik gabe egondako aldi honek on egin zidak. Edertasunaren sekretua norbere baitan dagoela ikasi diat. "Berez ederra denak, ez dik edergaririk behar". Hala ere, nirea denez, hartu egingo diat.*

*INAXITO: Horixe esango diot Margaritari, edertasuna bere baitan topatzeko, Laminak bezala.*

*LAMIA: "Bihotz eroria hitz on batek altxatzen dik". "Arkumerik ederrena, zintzarri gabe".*

- Inaxitoren eta Basajaunaren arteko elkarrizketa. Basajaunek Inaxito harrapatu berri du berari ahuntza kendu nahian zebilela:

*INAXITO: Haur txiki bat baino ez naiz! Ez nazazu bahitu... Ez nazazu kobazuloan sartu... Ez nazazu jan!!*

*BASAJAUN: Zergatik diok hori, Inaxito?*

*INAXITO: Zergatik ez? Jentilak ez al zarete, ba, horrexegatik ezagun?*

*BASAJAUN: Gugandik ikasi duzue zuek gizakiek, garia erein eta baratzeak landare*

*koloretsuz hornitzen! Animalia basatiak etxekotu eta hazten! Armiarma-sarek estalita-ko zuen begiek, ordea, ez ditek besteen txarra baino ikusten! "Ondo bada, eskerrik ez, eta txarto bada, zeresana" (tristuraz). Hori da zuen legea!*

### **3.2. Ipuinak eta kontaketak**

Ume garaietako oroitzapenen artean ditugu ipuin kontaketak: uneak, guneak eta beroietan sortutako giro askotarikoak. Gu baino zaharragoek, berriz, "artazuriketako kontuak" aipatzen dituzte. Bistan da, ipuin kontaketak baduela halako misterio eta xarma berezi bat. Ahozko tradizioaren iturri, zalantzarik gabe, eta oroitzapenaren giltzarri.

Gure antzezlanean euren lekua izaten dute ipuin edo kontakizunek, eta horiek ere propio txertatzen ditugu antzerkiaren testuan. Ipuinen edukia edo mamia lantzeaz gain, balio jakin batzuen transmisioa gauzatzea eta giro lasai bat lortzea ere bada helburua. Euskal tradiziozkoak diren ipuinak aukeratu izan ditugu gehienetan, baina ez dugu gai horretan mugarik jartzeko ohiturarik. Azken antzezlanean, kontaketa bera izan da antzezlanaren haria egiteko errekurso errepikatua, eta errepikatzen diren kontakizun horiek guztiak aitona zaharraren ahotan jarri ditugu. Aitonak pertsonaia mitologikoak aurkezten dizkio Inaxito haur bihurriari (ikusleari ere bai), heriotzaren azalpena ematen dio kontakizun metaforiko baten bitartez, bere iraganaren berri ematen dio...

Hona adieraziaren adibide bat:

Inaxitoren eta aitonaren arteko elkarrizketa. Inaxitok, halako batean, nekatu itxurako aitona zahar bat ateratzen ikusi du kobazulotik eta hizketan hasi zaio.

*INAXITO: Baina, baina nor zara zu? Ongi al zaude? Hemen bizi al zara? Laguntzerik nahi al duzu?*

*AITONA: Ez, ez. Hik ezin didak lagundu. Ni, lehen bandoa jotzen ikusi dituan Galtzagorrien jabea nauk. Intsektu madarikatuak! Hire adina nuenean dena nahi nian niretzat. Jakin nian bazirela Galtzagorriak izeneko erdi izaki erdi intsektu batzuk eta agindutako edozein lan egiteko sortuak zirela. Neureganatu nitian eta lurra erosi nitian baratzeak egin zitzaizten, basoak landatu zitiztean negurako nahikoa egur izan nezan... Nahi nian guztia lortu nian beraiei esker.*

(...)

*Intxaur azal baten barruan ekarri nitian. Intxaurra ireki eta askatu nituenetik ez naitek bakean uzten. Hau sufrikarioa nirea, hau mina, hau azkena duk, Inaxito. "Ezin bizi eta ezin hil".*

### 3.3. Kantuak

Haurren arreta piztu eta euren parte-hartzea bilatzea oinarrizkoa da gure antzezlanetan. Horretan izugarri laguntzen du eurentzat ezagunak diren kantuak kantatzeak. Gehienetan, kantuan hasi ohi dira, zenbaitetan txaloz lagunduta. Ikusle hutsak baino zerbait gehiago, antzerkiko parte bilakatzen ditugu ikusleak. Euskal kantagintzaren emari zabaletik aukeratutako kantuak baliatzen ditugu horretarako: bai antzerkian zehar landutako mezuak indartzeko, baita amaierako agurra sendotzeko ere.

Gure ikuskizunetan, kantuen funtzioa ere bada gidoiaren lokarri edo kate-begi izatea. Adibide honetan ikus daitekeen moduan, ilargia agertzen da egunaren eta gauaren arteko lotura eginez. Baita Basajaunen taularatzearen berri emanez ere:

Ilargiaren kanta.

*(Gauaren efektua eta ILARGIAk bertso bat kantatzen du. INAXITO erromeriaren zain ezkutatuta geratzen da zuhaitz baten atzean)*

*ILARGIA:*

*Gaueko ilunean zuhaitz bitartean,  
zeruan ageri naiz borobil betean.  
Basajaun ta Lamina gauaren atean,  
festa hasiko dute halako batean.  
Lalara lario lalaralario...*

*BASAJAUN:*

*Lalara lario lalaralario... (oholtzara ateratzen da)*

### 3.4. Bertsoak eta koplak

Bertsogintza eta antzerkigintza uztartzea izan denez gure bertso-antzerkien oinarri nagusia, aparteko lanketa izan dute beti bertso eta koplek gure obretan. Bertsoak eta bertsogintzak egin gaitu bertsozale, eta zaletasun horren iturritik eratorri da haurrengana bertsolaritza hurbiltzeko bide berriak jorratu nahi izana. Haurrentzako egokitutako formatu berri bat lantzen ahalegindu gara azken zazpi urteetan. Bertso-saio, bertso-afari edo txapelketa ohikoen arau sozialetatik urrunduz, bertsolaritza antzezlanaren osagarri bihurtu da. Obra osoaren osagarri, baina guretzat osagarri oinarrizko eta garrantzitsu.

Bertso-eskoletan ikasi dugu bertsoaren bitartez hizkuntzarekin ere jolasten, hainbat teknikaren jabe egiten, kantua eta hitz inprobisatua uztartzen... Hortik zer-nolako ekarpena egin diogu antzerkiari? Bertso eta koplak arruntak ez ezik, bertsogintzatik jasotako hainbat ariketa ere hitzaren jolas bihurtu ditugu, eta ikus-entzuleekin batera

konpartitzen ditugu gure antzerkietan.

Hitzaren jolasarekin eta bertsoekin lotura zuzena duten ariketa edo jolas hauek darabiltzazu gure antzerkian:

- Bertso zahar, bertso berri eta egokituak.
- Errima jokoak.
- Elkarrizketa errimatuak.
- Bat-batekotasuna.

### **- Bertso zahar, berri eta egokituak:**

Bertso zaharretatik abiatu eta aldaketa txiki batzuk eginez, ezaguna denari berritasuna erantsi eta testuinguruari egokitzen gatzaizkio. Beste batzuetan, aldiz, doinua bera soilik hartzen da kontuan bertso berriak egiteko. Adibidez:

Inaxitoren eta Basajaunen arteko elkarrizketa. Ia guriak egin du doinu eta bertsoaren lehen puntua berrekarriz bertsotan egiten dute: Inaxito haren ahuntza lapurtzeko saiakeran harrapatu berri du Basajaunek, eta belarritik gogotsu eusten ari zaio:

*INAXITO: Jada nireak egin du!*

*BASAJAUN: Orain errenta ordaindu!*

*Beraz, hi Inaxito  
izango haiz mutiko?*

*INAXITO: Bai, eta zu Basajauna?*

*BASAJAUN: Baso denetako jauna!*

*INAXITO: Arren, barkatu... barkatu*

*BASAJAUN: Jokoa ez duk bukatu.  
Laminen orrazia,  
ahuntzaren garrasia!*

*INAXITO: Aitona nahi dut lagundu  
Bi Galtzagorriak kendu!*

### **- Errima jokoak:**

Bertsoaren bat-batekotasuna agerian geratzen da ariketa hori egiterakoan. Galtzagorri langile nekazaria lan eske hasi zaio Inaxitori, eta bizpahiru zeregin jarri orduko bete

ditu eta gehiagoren eske ari zaio. Inaxitok, bertso bat botatzeko eskatzen dio momentuan, ezinezkoa izango duelakoan. Baina bai bota ere:

Galtzagorriaren eta Inaxitoren arteko elkarrizketa.

*GALTZAGORRIA: Zer lan , zer lan, zer lan.*

*INAXITO: Ipurdia itxita harriari buelta eman!*

*GALTZAGORRIA: (Agindutakoa egin ostean) Zer lan? Zer lan? Zer lan?*

*INAXITO: Ibil zaitetz ardi baten eran!*

*GALTZAGORRIA: (Egin ostean) Zer lan? Zer lan?*

*INAXITO: Bota bertso bat segituan.*

*GALTZAGORRIA: Ba zuek errimak eman iezazkidazue orduan.*

*INAXITO: Errimak?*

*GALTZAGORRIA: Bai hoskideak diren hitzak. Sudurra, lapurra...*

*INAXITO: Hezurra*

*GALTZAGORRIA: Txakurra*

*INAXITO: Muturra*

*GALTZAGORRIA: Hori, hori! Bota zuek hitz bat, edozein... eta harekin errimatzen dutenak jarraian!*

Galtzagorriak bertso bat osatu eta kantatzen du publikoak emandako oinekin. Kantatzen doan heinean, datorren oina zein den asmatzeko jokoa ere egiten dugu. Horretarako, Inaxito eta Galtzagorria mezu sinboliko eta ikusgarriez baliatzen dira. Ariketa horretan, haurren eta gurasoen aurpegietan islatzen da bat-bateko bertsoaren magia. Zenbaitetan publikoa harri eta zur geratzen da Galtzagorriak bertsoa nola osatzen duen ikusi eta entzunez.

### **- Elkarrizketa errimatuak:**

Bertso-antzerkiaren testua bere osotasunean elkarrizketa errimatuaren printzek aberastua da. Aurreko adibideetan ere argi ikusten da jolas horren presentzia ugaria, baina ariketa hori, batez ere eta propio, pertsonaia mitologikoen ahotan jarri izan dugu euren



hizkera berezituaren adierazgarri. Musikalitatea eta erritmoa emanez, bide batez, antzerkiaren ahozko testu osoari. Begira honako adibideari:

Basajaunen eta Anbotoko Anderearen arteko elkarrizketa.

*(ANBOTOKO ANDEREA tximista eta trumoi hots artean agertzen da BASAJAUNengana eta INAXITO ezkutalekutik begira dago)*

*BASAJAUN: Agur Anbotoko Andere, hire beharrea gaitun orain ere.*

*ANBOTOKO A.: Gabon, Basajaun, ni gabe ez duk askorik iraun. Zer gertatu da oraingoan?*

*BASAJAUN: Laminari orrazia lapurtu zioten.*

*ANBOTOKO A.: Ba ote?*

*BASAJAUN: Bazakinagu nor izan den.*

*ANBOTOKO A.: Nor?*

*BASAJAUN: Inaxito!*

*ANBOTOKO A.: Inaxito? Orduan, nik ekaitza sortu eta kito, ez duk berriz itzuliko.*

*BASAJAUN: Ez, ez, horixe dun umemoko horrek nahi duena. Urik gabe zabiltzan herrian barrena, eta ekaitza botatzea ez dun ideiarik onena.*

*ANBOTOKO A.: Basajaun, ez hadi ardura, ur samalda bidaliko zieat, bai, ito arteko ura. Doazela denak infernura!!*

*BASAJAUN: Doazela bai, doazela infernuko zulora, baina aurretik emadan nire ahuntzak gobernatzeko denbora!!*

*ANBOTOKO A.: Hoa, hoa... hire bidean behera eta gora.*

### **- Bat-batekotasuna:**

Bertso-antzerkiak, gidoi bati lotuta egonik ere, inprobisaziotik asko du, antzezleen arteko elkarrekintza malgua delako: testuinguruak baldintzatuta, haurren parte-hartzeak baldintzatuta, edozein egoerak baldintzatuta aldatzen da testua, eta antzezleek inprobisatuz heltzen diote, berriz ere, oinarrizko gidoiari (oinarrizko testuari).

Jardun era horrek freskotasuna eta egiantzekotasuna ematen dio antzezpenaren hariari. Izan ere, beti dugu irekia horrenbeste gustatzen zaigun inprobisazioaren zirrikitua,

nahiz hainbatetan arriskutsua ere baden interpretazioaren alderditik. Hitza, gidoia, bertsoak, koplak, jolasak eta elkarrizketak eraldatu edo egokitzeko malgutasunez jokatzan dugu, eta horrek zenbaitetan inprobisazioaren abenturan murgiltzen gaitu.

Konplizitate hori ahozko hizkuntzaren bidez lortzen da, batik bat. Horretarako, aldiro haurrak antzerkiaren, gertaeren parte senti daitezzen saiatzen gara. Galderak egiten dizkiegu, esaldiak osatzeke utzi, ezagunak diren kantuak erabili, hitz gako ezagunak txertatu eta zenbaitetan ahozko mezu horiek gorputzaren mugimenduarekin laguntzen dira.

Bestalde, bertso gehienak aurrez prestatuak badira ere, egokitu egiten ditugu testuinguruaren arabera, eta inguruko erreferentziak nahiz gorabeherak txertatzen saiatzen gara. Aurrez aipatu dugun errima jokoa, aldiz, erabat bat-batekoa izaten da.

Emanaldiko hainbat unetan, berriz, bertan gauden guztiak bihurtzen gara bertsolariak modu inplizitu batean. Guztiak bihur gintezke bat-bateko bertsogintzaren parte. Izan ere, bertso bat osatzeko beharrezko diren ideiak, horien antolaketa, errimak eta beste, publikoak berak proposatzen ditu bertsolari-antzezleen laguntzarekin. Eta guztion artean osatzen ditugu errima jokoak, bertsoak zein ariketak.

### **3.5. Ahozko elkarrekintza**

Ikusi den bezala, bertsoa komunikazio errealearekin uztartuta ageri da beti: elkarrizketa zein bakarrizketetan, kantuaren babesean zein hitz soilean. Antzezleen eta ikus-entzuleen arteko hartu-emanen. Eta hori guztia jantzita agertzen da antzerkigintzatik jaso ditugun euskarri baliagarrien bitartez.

Bertsoa hitzarekin, irudiarekin, eritmoarekin, espazio jakin batekin, material batzuekin, jantzi batzuekin, musikarekin... lotuta dago beti. Jakin badakigu bertsoaren muina hitza izanda ere, ulermena errazteko baliabideak erabiltzea komeni dela hartzaileak mezuaren haria jarraitu eta hari hel diezaion, eta halaxe kantatzen ditugu bertsoak, ikus-entzunezko lagungarri eta gorputz adierazpidez aberastuz (Tolosa, G. 2007).

Bertsoa antzeztuz kantatzen denez, ahozko ezaugarri komunikatibo gehiagorekin jantzen dugu bertsoa bera. Antzezle-bertsolariak elementu testual eta paratestualen bidez komunikatzen du eta komunikatzen da publikoarekin.

Ahoz komunikatzen gara eta elkarrekintza sustatzen dugu horretan. Publikoarekiko harremanean ez gara konformatzen bertsoari jotako txaloarekin. Antzezleen eta publikoaren arteko hartu-emanaren lokarriari eustea da gure ardatz nagusietako bat. Inaxito mutiko bihurri eta protagonistaren bitartez lortzen dugu elkarrekintza hori, bera arduratzen baita ikus-entzuleak antzerkiaren hariaren parte izan daitezten: bertsoetarako errimak proposa ditzaten, galderei erantzun diezaioten, proposamenak egin ditzaten, antzezleekin batera dantza egin dezaten...

#### 4. EUSKARA

Bertsogintzatik eta bertso munduan, batez ere, ikasi dugu zenbaterainoko garrantzia duen komunikazioan hizkuntzaren kalitateak. Hizkuntzarekin jolasten ez ezik, haren zirrikituak ustiatu eta egokiena bilatzen ere ikasi dugu bertsogintzari esker, eta gure bertso-antzerkian ere aparteko garrantzia ematen diogu hizkuntzaren kalitateari; hizkuntza bera zaintzen eta gozaten saiatzen gara.

Antzerki testua eraikitzeke garaian, lehen oinarria da hizkuntza maila jasoan ekoiztea, eta ahozko ekoizpenean ere testuinguruaren arabera egokitzen saiatzen garen arren, jarrera berdineko jarraitzen dugu. Hizkuntza zailduak ez baitu zertan ulerkortasuna ebatsi, are gutxiago gure bertso-antzerkien moduan, hainbat ulermen estrategia erabiltzen ditugu-eta jardueraren hariari jarraitzeko.

Esan bezala, ez gara hitzez hitz dena ulertu behar delako teoriaren aldekoak. Askotan freskotasuna galtzea dakar horrek eta guk freskotasunaren aldeko apustua egin dugu. Dena den, beti saiatzen gara ulermena ziurtatzen duten baliabideak erabiltzen, hala nola, irudiak, errepikapenak, ziurtapen galderak, imintzioak, ikusleei egindako eskakizunak, gorputz adierazpena...

Helburu nagusia da edonon dela ere emanaldia, hurrek hizkuntza maila jasoan gidoiari jarraitzea, antzerkiaren gozatea. Horretarako, haurren ulermena bermatu behar da, noski, baina ez horretarako gehiegizko euskara *mastekatu* baten erabilera erori.

Nola argitu ondorioak? Bi adibiderek: azken antzerkiarekin Gasteizen 14 emanaldi eginak gara eta beste bat Ziekon; baita iparraldean ere beste emanaldi bat. Bi eremu oso ezberdin hizkuntza aldaera eta ezaugarri soziolinguistikoei dagokienez. Bi eremuetan haurrak pozik, antzerkiko parte eta partaide. Ulermen prozesuaren lorpena eta komunikazioaren arrakasta.

Bestalde, hizkuntzaren egokitzapenez dihardugunean esan nahi dugu euskara estandarra oinarri hartuta, tokian tokiko aldaera ezagunak baliatzen saiatzen garela. Hizkuntza *estandarra* edo guretzat gertukoaren diren aldaera dialektalak, alegia. Nolako egoera linguistikoa, halako erabakiak hartzen ditugu ekoizte unean, eta ahalegintzen gara, betiere, haurrentzat gertukoaren izan daitekeen moduan komunikatzen. Gure ustez, freskotasunaren berme da hori.

Erregistroen erabilerrari dagokionean, erregistro formala eta informala lantzearen aldeko apustua egin dugu gure bertso-antzerki guztietan. Zehazki esateko, hika eta zuka komunikatzen jarri ditugu pertsonaiak. Gure azken antzerkian, mitoen munduko pertsonaiak eta Aitona Zaharra hika ari dira; Inaxito, berriz, zuka ari da eurekin eta ikusentzuleekin. Input askotarikoa eta aberatsa eskaini nahi izatearen arrastoa da hori.

## 5. ONDORIOAK

### 5.1. Hutsuneak aukera

Ondo baino hobeto dakigu zer ikasi handia dugula antzerki mundutik. Formazioz punta-puntako antzezleak ez bagara ere, gure intentziorik onena jartzen dugu jokoan emanaldira. Hutsune horrek antzerki munduarekin harremanetan jartzera bultzatu gaitu. Besteak beste, diziplina hori ezagutzeko gogoak eraman gaitu bertsoa eta antzerkia uztartzera.

Lehenago bertso-eskolan egiten genituen bertso-antzerkien eduki eta helburuak modu kontzientean lantzen dira orain.

Pozik diogu, beraz, gure hutsuneak zein diren jakiteak eta umiltasunez onartzeak, zazpi urte hauetan aukera ederrak eskaini dizkigula antzerkiaz gozatzeko, bertsoa eta antzerkia uztartzeko, mundu berri bat, lagunarte zabal bat, haur zoragarri eta, zergatik ez, bihurri mordo batekin harremanak izateko eta, bide batez, Euskal Herriko hainbat txokotara iristeko.

Laburbilduz, profesionalki eta pertsonalki aberastu baino ez gaitu egin.

### 5.2. Bertsolaritzaren hedapena

Antzerkia bidelagun, bertsogintzak bereak dituen hainbat *jolas* aurkeztu dizkiegu haur eta gurasoei gure emanaldietan. Horrenbestez, helduei zuzendutako bertso-saioak oinarri dituen bertsogintza tradizionalaz harago, ekarpenzat dugu gure bertso-antzerkietan haurrentzako *jolasok* aurkeztu eta landu izana.

Modu horretan, bertsolaritzaren ezagutza hedatu dugu haurrengan eremu soziolinguistiko askotarikoetan. Erdal zein euskal guneetan. Tokian tokira egokitzen saiatu gara inguru bakoitzeko ulermen mailetara moldatuz eta, antzerkigintzaren hainbat baliabideri esker, haurrei ulermena bermatzeko tresnak emanez.

Barrena betetzen du emanaldi bukaeran haurrak koplen errepikapena kantari entzuteak, edo leku berera bi urte geroago joan eta aurreko antzezlaneko koplen errepikapenarekin harrera egiteak.

### 5.3. Bokazio pedagogikoa: balioak eta hizkuntza jabeak

Ez gara moralistak, baina gidoian hurrekin landu daitezkeen hainbat balio txertatu zaleak bai. Lehen antzerkian, mundu ikuskera, doinu eta ohitura ugari aurkeztu genituen; bigarrenan, irudimenarekin jolas egiteko aukerak eskaini genizkien haurrei; hirugarrenean, berriz, euskal mitologiak berak dakarren karga morala gordinki aurkeztu dugu: biziaren eta heriotzaren aurrean mitologiak eskaintzen dituen erantzunak aurkeztu ditugu, besteak beste.

Gozarri izateko sortua den emanaldiak sakonean badu haurrei zer edo zer transmititu edo irakasteko barne gogoia.

Gai edo balio horiek barnera daitezen beharrezkoa zaigu, hein handi batean, haurren ulermena bermatzea. Gainerakoan, haurren jarrera pasiboa gerta daiteke, ikus-entzule soilarena. Beharrezkoa zaigu haurren ezagupenetik abiatu eta Vigotsky-k aipatzen zuen andamiatzea (1993) edo laguntza tresnak erabiltzea; kasu honetan, antzezlanetan zehar egiten diren erreferentziak, erabiltzen den atrezzoak, gorputzarekin lagunduz esaten dena, Inaxitoren esku-hartzeak... Ulermena ziurtatzeak garamatza ikus-entzuleen partaidetza ugaritzera.

Horrez gain, lehenago erantzundako galderak eginez, koplak edo kantu bat buruz ikasiz, bertsoak osatzen lagunduz, esaera zaharrei bukaera emanez... haurra antzezlanaren parte bihurtzen da eta horrek ere lagundu egiten du hizkuntzaren –euskararen– jabekuntza eta ekoizpena ahalbidetzen.

Vigotskyk zioen “hizkuntzaren jabekuntza harreman sozialetan gertatzen dela”, eta gure antzezlanak ere hori ahalbidetzen du, neurri batean.

#### **5.4. Haur guztiekin da posible**

Behin entzuna diot irratian Juan Kruz Igerabideri aurreiritziak ditugula haurren ulermen gaitasunaren inguruan. Haurrei “sinple” egiten diegula eta helduei “konplexu”.

Aurreiritzi hori puskatu nahi izan dugu euskarari dagokionean gure azkeneko *Galtzagorriei to, Inaxito!* antzezlanean, batik bat. Gure ustez, haurrek baino gehiago, helduok ditugu zailtasunak, haurrei beldurrik gabe hitz egiteko. Horregatik, kalitatezko inputaren aldeko apustua egin behar dela uste dugu haurrei zuzendutako eskaintza zein eskura dituzten hainbat materialean. Horren adibidea da bertso-eskola garaietan irakurri eta lantzen genituen hainbat bertso zahar. Oraindik ere lagunartean kantatu edo horien hainbat pasarte edo zati –puntu– hitz egiterakoan erabiltzen ditugu.

### **6. BIBLIOGRAFIA**

Arana, A. 2000, *Mito hurbilak: euskal mitologia jendeen bizitzan*, Gatuzain, Larresoro.

Arana, A. 2004, *Mitoen bilakatzea: akaberak eta iraupena*, Gatuzain, Larresoro.

Bruner, J. 1988, *Realidad mental y mundos posibles*. Gedisa. Bartzelona.

Tolosa, G. 2007, «*Bertsogintza eta haurrentzako antzerkigintza: bi diziplina uztartzearen ahalegin emankorra*», EGAN: Euskalerriaren adiskideen elkarteko buletina 1-2 zk.: 275-303.

Trikuharri taldea 2008, *Galtzagorriei to, Inaxito!*

Vigotsky, L. 1993, *Pensamiento y lenguaje. Obras Escogidas*. T 2 Visor. Madril.